

Getxo

Portu Zaharra Puerto Viejo



www.getxo.net/turismo

Leku jatorra eta atsegina bilatzen baduzu, urteetan itsasoari lotuta bizi izan direnen tokia, eta egun lagunekin zerbait edan, jan eta berba egiteko tokia. Giro ona, historia eta tradizioa dituen tokia bilatzen baduzu, Portu Zaharra da zure tokia.

Portu Zaharra (Historia)

Algortako portuko marinel-jarduera, beti, Abrako baldintza berezietara egokituta egon da: fisikoak, baldintza meteorologikoak, korronteak... eta ekonomikoak ere bai, Bilboko portuan sartzeko gunea den aldetik.

Bere aktibo profesional nagusietako bat Algortako marinelek Abran (eta nabigazioan oro har) zuten eskarmentua izan da. Bestea, Algortako kokapen geografikoa, Abraren sarreraren oinpean eta inguru honetako nabigazioa kontrolatzeko talaiarik onenaren jabe.

Hasieran, Algorta herri koxkorra zen eta bere biztanleek itsasoarekin lotutako jarduerak burutzen zituzten.

Zuzeneko merkataritzan aritzea ezinezkoa zuen Portugalete eta Bilboko hiriek zituzten pribilegioengatik, horregatik, dedikazio mistoa zuen. Hau da, itsasbazerreko arrantza itsasontzi txikietan eta portuko lemari-lanak, Bilbora joaten ziren itsasontziei itsasadarrean sartzen eta bertatik ateratzen laguntzea alegia.

Portuko itsas jarduerak hazi eta zabaltzean, Algortako marinelek hauek arauetuko zituen erakundea sortu beharra ikusi zuten. Portugaleteko pribilegioek ezarritako legezko mugen ondorioz, sortu zuten erakundeak, Algortako San Nikolaseko marinelen Kofradiak alegia, antolaketa minimoa izan zuen. XVII. Mendearen lehen herenean jaio zenetik kargu nagusia maiordomoarena zen, kide guztiek aukeratzen zutena.

Hasiera batean, bilerak Andra Mariko elizako hilerraren ondoan egiten zituzten, baina laster (1634) Portu Zaharreko San Nikolas basilizara joan ziren, eta bertatik, mende bat beranduago, xede horretarako eraikitako Etxetu egoitzara igaro ziren.



Si buscas un lugar auténtico, con encanto, donde sus gentes han vivido durante años unidas al mar, donde hoy las cuadrillas se juntan para tomar unos potes, pintxos y conversar, si buscas un lugar con ambiente, historia y tradición, el Puerto Viejo es tu sitio.

Puerto Viejo (Historia)

La actividad marinera del puerto de Algorta estuvo siempre adaptada a las particulares condiciones del Abra: físicas, meteorológicas, corrientes etc. como económicas, como punto de entrada del puerto de Bilbao.

Uno de sus principales activos profesionales fue la experiencia de los marinos algorteros sobre el Abra y la navegación en general. El otro, la posición geográfica de Algorta, dominando la entrada del Abra y con las mejores atalayas para controlar la navegación de la zona.

Inicialmente, Algorta era sólo un pequeño enclave con una población dedicada a actividades relacionadas con el mar.

Excluido el comercio directo que estaba limitado por los privilegios de las villas de Portugalete y Bilbao, dominaba una dedicación mixta, producto de la combinación de la pesca de bajura en pequeñas embarcaciones y los lemanajes, es decir, la ayuda a la entrada y salida de la ría y del Abra a los barcos que se dirigían a Bilbao.

Al crecer y ampliarse las actividades marítimas del puerto los marinos de Algorta tuvieron la necesidad de crear un organismo que las regulara. Las limitaciones legales impuestas por los privilegios de Portugalete hicieron que la institución resultante, la Cofradía de mareantes de San Nicolás de Algorta, mantuviera una organización mínima.

Desde su nacimiento durante el primer tercio del siglo XVII, el cargo principal era el de Mayordomo, elegido por todos los miembros. Las reuniones se hacían inicialmente junto al cementerio de la iglesia de Santa María, pero pasaron pronto (1634) a la ermita de San Nicolás en el Puerto Viejo, y de ahí, un siglo después, a la casa Etxetxu, construida para ese fin.



Lemariak

“Barra” izenekoak, hau da, itsasadarraren bokalean Getxo eta Portugaleteko herrien parean sortzen ziren hareatzek, eragindako arazoen ondorioz beharrezkoa zen itsasontzian praktikiko edo portu-pilotua egotea Bilboko portuan sartzeko. Eginkizun hau lemari zaharren esku zegoen. Hauek Getxo, Portugaleta, Zierbena eta Santurtziko marinelak ziren.

Lau kofradien portu-pilotuaren txalupak zaintzan egoten ziren hodeiertzean itsasontziren baten belak noiz ikusiko. Itsasontzia ikusitakoan, harengana jotzen zuten lehia estuan, izan ere, lehenen iristen zen lemari-pilotua portura zuzentzeaz arduratuko zen. Lemaria itsasontzi barruan zegoenean, itsasontzia itsasadarreko sarrera-kanalera zuzentzen zen edo, bestela, Abrako atrakalekura barra zehartzeko momentuaren zain. Izan ere, bertan itsasgora baino bi ordu lehenagotik horren osteko bi ordura arte bakarrik ibil zitekeen.



Naufragoen salbamenduko estazioa

Abraren ezaugarri bereziek eta “barraren” arrisku-garritasunak naufragio ugari eragin zituzten. Getxoko eta Abrako beste herri batzuetako herritarrak izan ziren naufragoak salbatzeaz arduratzen zirenak.

Urteen ostean, salbamenduko estazioa sortu zuten, eta horretaz bereziki prestatu eta entrenatuta zeuden gizon taldea arduratzen zen. Ekaitza zegoen gauetan zaintzako txandak egiten zituzten. Zelataria Erriberamuneko karelean edo, bestela, Etxetxuko ataripean egoten zen. (Ikusi Portu Zaharreko toki interesgarriak).

70eko urteetatik aurrera ArriLuze Kaiko Salbamendu Estazioa edo Naufragoen Etxea Itsasoko Gurutze Gorriaren esku dago. (Ikusi inguruetan beste toki interesgarri batzuk).

Portu Zaharra (Gaur)

Algortako Portu Zaharrak denboraren joan-etorriaren aurrean iraun du bere xarma osoari eutsiz. Egun, auzune hau, kolore biziko arrantza-leen etxeekin eta kale estuekin batera, Getxoko bizitzaren atal garrantzitsua da.

Asteburuetan getxoxtar eta bisitari askoren gogoko lekua ere bada, bertan zerbait edan, pintxoak jan edo paseatzeko eta Abrako ikuspegi ederrez gozatzeko bakarrik elkartzen baitira.

Los lemanes

Los problemas ocasionados por la llamada "barra", es decir, los arenales que se formaban en la desembocadura de la ría a la altura de Getxo y Portugalete, hacían necesario contar con un práctico a bordo para entrar en el puerto de Bilbao. Esta tarea correspondía a los antiguos lemanes, gentes de Getxo, Portugalete, Zierbena y Santurtzi.

Las lanchas de lemanaje de las cuatro cofradías montaban guardia en espera de divisar las velas de algún navío en el horizonte. Una vez avistado el barco, se dirigían hacia él en refida competencia ya que el piloto lemán que primero lo abordase sería el encargado de guiarlo al puerto. Una vez el lemán a bordo, el barco se dirigía al canal de entrada de la ría o bien al fondeadero del Abra en espera del momento en que pudiera cruzar la barra, pues ésta sólo era practicable desde 2 horas antes de la pleamar hasta 2 horas después.

Estación de Salvamento de Náufragos

Las especiales características del Abra y la peligrosidad de la "barra" ocasionaron numerosos naufragios. Fueron gentes de Getxo y de otros pueblos del Abra, las encargadas del salvamento de náufragos.

Con el tiempo, se creó una estación de salvamento, compuesta por un equipo de hombres especialmente preparados y entrenados. En las noches de temporal hacían turnos de guardia. El vigía permanecía en el pretil de Erriberamune o bien en el pórtico del Etxetxu. (Ver puntos de interés en el Puerto Viejo).

Desde los años 70 la Estación de Salvamento o Casa de Náufragos del Muelle de Arriluze está en manos de la Cruz Roja del Mar. (Ver otros puntos de interés en los alrededores).

Puerto Viejo Hoy

El Puerto Viejo de Algorta ha sobrevivido al paso del tiempo conservando todo su encanto. Hoy este barrio, con sus casas de pescadores de alegres colores y estrechas callejuelas, es el reflejo vivo de una parte importante de la vida de Getxo.



Portu Zaharrean San Nikolasen zaindariaren jaiak egiten dituzte (abuztuak 12). Jai horiek zaharrenek gogorarazten dituzten antzinako erromerietan oinarriturik daude. Gainera, Corpus Christi ere bertan ospatzen da (maiatza-ekaina).

Monumentu multzoaren barruan jasota dago, Kultur Ondareko kategoriarekin, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak kalifikatuta.



Bitxikeriak

Kofradia

Bere barruko arauak bai salmentak, salneurri txikiak saihesteko, bai Abrako natur baliabideak, espezieak ez agortzea bermatzeko, araupetzen zituzten. Algotako marinelen kontratazioa babesten zuten, eta horretarako aparteko zerga kobratzen zien kanpoko marinelak kontratatzen zituztenei. Horretaz gainera, neurri higieniko-sanitarioak ere ezartzen zituzten arraina portuan bertan garbitzea debekatuz. Isuna 8 errealekoa zen.

San Nikolaseko erromeria

Oso antzinatik txalupen maisuek eta Portu Zaharreko marinelek Bariko San Nikolas omentzen zuten, kultu eta jaien bidez. Baseliza kanonikoki parrokia bihurtzean (1808), zaindariaren jaia auzoko jai nagusi bilakatu zen.

Txoa (ontzi-mutila)

Eskifaiako gazteena zen, jaikitzen zen lehena (lehorreko bere eginkizuna marinela guztiak, etxez etxe, esnaraztea baitzen) eta itsasontzian sartzen zen azkena.

Naufragioetako kaltetuak laguntzera joaten ziren boluntarioak ere bilatzen zituen txoak. Haren irudia Portu Zaharreko jaien ikurra da.

También es uno de los lugares preferidos los fines de semana por gran cantidad de getxotarras y visitantes que se juntan para tomar potes, 'pintxos' o simplemente para pasear y disfrutar de las magníficas vistas del Abra.

En el Puerto Viejo tienen lugar sus fiestas patronales dedicadas a San Nicolás (12 de agosto) basadas en las antiguas romerías que recuerdan nuestros mayores y la celebración del Corpus Christi (mayo-junio).

Forma parte del Conjunto Monumental con la categoría de Bien Cultural Calificado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Curiosidades

Cofradía

Sus reglas internas regulaban tanto la venta, para evitar precios bajos, como los recursos naturales del Abra, para garantizar que no se agotaran las especies. Protegía la contratación de los marinos de Algorta, cobrando un impuesto extraordinario a quienes contrataban marinos de fuera. También imponían medidas higiénico-sanitarias al prohibir la limpieza de pescado en el puerto con una sanción de 8 reales de multa.

Romería de San Nicolás

Desde muy antiguo los maestros de lanchas y la marinería del Puerto Viejo honraban a San Nicolás de Bari, con cultos y festejos. Al convertirse canónicamente la ermita en parroquia (1808) la festividad del Patrono adquirió solemnidad de fiesta principal del barrio.

Txo (el grumete)

Era el más joven de la tripulación, el primero que se levantaba (puesto que su cometido en tierra era despertar, casa por casa, a todos los marineros) y el último que subía a bordo.

También reunía a los voluntarios que acudían a socorrer a los damnificados de los naufragios. Su figura es el símbolo de las fiestas del Puerto Viejo.



Portu Zaharreko toki interesgarriak

San Nikolaseko Baseliza Zaharra ❶ Kofradiako marinelek sortu zuten eta bere zaindari santuaren izena jarri zioten. Historian, lehen aldiz, 1634. urtean agertu zen, kofradiako kideak bertan biltzen zirela aipatzen baita.

XIX. mendean basiliza itxi zuten eta erabilera berriak hartu zituen. Horrela, Nautika Eskola izatera ere iritsi zen. 1948. urteko zahar-berritzeak, azkenean, etxebizitza bihurtu du, jatorrizko traza ia guztiz aldatuta, horregatik ez dago ia ezagutzerik, absidea izan ezik.

Arrantzalea eta Sardina-saltzailea ❷ Portu Zaharreko antzinako pertsonaiek omentzen dituen eskulturak: sardina-saltzailea (Luis Iñiguez eskultorearen artelana) eta arrantzalea (Jose Luis Butrón eskultorearen artelana).

Etsetxua ❸ Itsasora ateratzen den eraikina, planta itxi bakarrekoa eta ataripe irekia duena; honen atzealdean zehar banku jarraitua ere badago. Marinelen Kofradiak XVIII. mendean eraiki zuen bertan bere bilerak egin eta erabakiak hartzeko.

Erriberamune ❹ “Erriberamune”-ko karela, Etsetxuren ondoan, portura ematen duten eskaileren eskailera-buruan, marinela eta arrantzaleak biltzeko ohiko toki izaten zen. Bertatik, belaualdiz belaualdi, hodeiertza ikuskatzen zuten.

Asuarka ❺ (Ahoz Portu Zaharrean Suerka esaten zaio). Erriberamuneren azpian zegoen plaza.

Getxoko Sirena ❻ Artelan dinamiko da (aldi baterakoa).

Puntos de interés en el Puerto Viejo

Antigua Ermita de San Nicolás ❶ Fue fundada por los mareantes de la cofradía y puesta bajo la advocación de su santo patrón. La 1ª noticia histórica de su existencia data de 1634, cuando se la cita como lugar de reunión de los cofrades.

En el siglo XIX la ermita quedó clausurada incorporando nuevos usos y llegó a ser Escuela Náutica. La reforma de 1948 ha terminado por convertirla en casa de vecinos, modificando casi por completo la traza primitiva, por lo que es ya prácticamente irreconocible, excepto el ábside.

Arrantzale y Sardinera ❷ Esculturas que rinden homenaje a personajes de antaño del Puerto Viejo: la sardinera (obra del escultor Luis Iñiguez) y el arrantzale (pescador) (obra del escultor Jose Luis Butrón).

Etsetxu ❸ Edificio asomado al mar, de única planta cerrada y soportal abierto con banco corrido a todo largo del fondo. Construido en el siglo XVIII por la Cofradía de Mareantes para celebrar sus reuniones y la toma de decisiones.

Erriberamune ❹ El pretil de “Erriberamune”, al lado del Etsetxu, en el descansillo de las escaleras que bajan al puerto, fue el lugar típico de reunión de marinos y pescadores y desde el que otearon el horizonte muchas generaciones.

Asuarka ❺ (Oralmente se le llama Suerka en el Puerto Viejo). Plaza situada debajo de Erriberamune.

El Sireno de Getxo ❻ Obra de arte dinámica (temporal).



SAN NICOLAS
CUESTA USATEGUI

GAZTELUGATXE

AREXONDO

1

P

PORTUZHARRA

NUEVA

CARIDAD

3

4

2

P

5

RIBERA

MUELLE DE EREAGA

SATISTEGI

6



Data garrantzitsuak

Gorpuzti eguneko Festa (Maiatza-Ekaina)
San Nikolas jaia (Abuztuaren 12a)
Ondarearen Europako Jardunaldia (Urria)


Iradokizunak


Ezagutu gure ondarea gomendatzen dizkizuegun bisiten bidez:

Bisita Gidatuen Programa. Udaroan. Kontsulta itzazu ordutegiak eta hizkuntzak.

Getxo taxi tour. Bisitaldi turistikoa audiogidatuak. 15€ tik gora/taxi.

Gainera, Portu Zaharrerako bisita aprobetxatu oroigarriren bat erosteko edo bai taberna bai jatetxeetan bertako gastronomia dastatzeko.

 Ikur honekin saritutako enpresek ahalegin handia egiten dute kalitate parametroen arabera kudeaketa egiteko, euren bezeroei etengabean hobetzen duten zerbitzu bikaina eskaintzeko asmoz.

 Kalitate turistikoa
2014ko prezioak, BEZa barne.

Fechas representativas

Fiestas del Corpus (Mayo-Junio)
Fiestas de San Nicolás (12 de Agosto)
Jornadas Europeas del Patrimonio (Octubre)


Sugerencias


Conoce nuestro patrimonio con las visitas que te sugerimos:

Programa Visitas Guiadas. En temporada estival. Consulte horarios e idioma.

Getxo taxi tour. Circuitos turísticos audioguiados en taxi. Desde 15€/taxi.

Además aprovecha tu visita al Puerto Viejo para comprar algún recuerdo o degustar la gastronomía local en cualquiera de sus bares de pintxos y restaurantes.


 Las empresas distinguidas con este símbolo realizan un notable esfuerzo por gestionarse en base a parámetros de calidad con el fin de ofrecer a sus clientes un servicio óptimo que mejoran de manera permanente. Busca el símbolo y disfruta de una experiencia de calidad.

 Calidad turística
Precios 2014, IVA incluido.

Jatetxeak / Restaurantes

Asador Goiezi: 94 460 38 83
El Puerto Zabala: 94 491 21 66
Itxas Bide: 94 491 05 89
Karola Etxea: 94 460 08 68
Sausalito: 94 491 28 99

Pintxo Tabernak / Bares de pintxos

Arrantzale: 94 460 12 44 
Itxas Bide: 94 491 19 87
Portu Zaharra: 94 460 20 33 
Txomin: 94 460 90 18
Usategi: 94 460 64 13

Dendak / Tiendas

Txalupa: 687 211 394



Beste toki interesgarri batzuk (ikusi atzeko mapa)

San Nikolas eliza

Usategiko parkea (Usategiko
San Inazioko bateria zaharra)

Naufragoen salbamenduko estazioa
"Itsasoan galdutakoen Etxea"

Otros puntos de interés (ver mapa contraportada)

⑦ Iglesia de San Nicolás

⑧ Parque Usategi (antigua batería
de San Ignacio de Usategi)

⑨ Estación de Salvamento de Náfragos
"Casa de Náfragos"




Informazio telefonoak

- Getxoko Turismo Bulegoa 94 491 08 00
- Turismo Informazioko Gunea (TIG) Bizkaia Zubiaren
ondoan - 615 75 62 90 - Aste Santutik urrira bitartean.

Teléfonos de información

- Oficina de Turismo de Getxo 94 491 08 00
- Punto de Información Turística (PIT) junto al Puente
Bizkaia - 615 75 62 90 - De Semana Santa a Octubre.

-  Behatokia Mirador
-  **P** Aparkalekua Aparcamiento
-  Nola heldu Cómo llegar
-  Bidegorriak Carril bici
-  Errepideak Carreteras
-  Metro linea Línea de metro
-  Metro geltokia Estación de metro
-  Turismo Bulegoa Oficina de turismo



 **Getxo**
Euzko lurraldea Turismoa

Playa de Ereaga, s/n
48992 Getxo (Bizkaia) Euskadi
Tel. 944 910 800
infoturismo@getxo.net

www.getxo.net/turismo

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

